



www.begiko.com

© Testua: 1967, S. E. HINTON.

© Itzulpena: 2018, XABIER BILBAO eta AMETS SANTXEZ

© Euskarazko argitalpena:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-29-2

Lege-gordailua: M-16335-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

ERREBELDEAK

S. E. HINTON

begiko

Jimmyrentzat

Zinema-areto ilunetik kanpoko argitasunera ateratzean, bi gauza baino ez nituen buruan: Paul Newman eta etxerako buelta. Paul Newmanen traza izan nahiko nuke... Hark tipo gogorra ematen du, eta nik ez. Nik ere ez daukat itxura txarrik, baina. Ile gaztainkara argia dut. Ia gorria. Eta begi gris berdexkak. Nahiago nuke grisagoak balira! Gorroto ditut begi berdedun tipoak. Baina tira, daukadanarekin konformatu behar! Ile luzea dut: atzean zuzen moztua eta aurrean eta alboetan luzea. Mutil gehienek laburragoa izaten dute. Baina *greasera*¹ naiz ni, eta auzoan ez du inortxok ilea mozteko lanik hartzen! Gainera, hobeto nago txima luzeekin.

Paseo luzea egin nuen etxeraino. Eta lagunik ez nirekin. Baina bost axola niri. Nahiago dut filmak bakarrik ikusi. Atsegin dut filmean barneratu eta aktoreekin bat egitea. Zineman nire ondoan norbait izatea deserosoa egiten zait. Norbaitek zure alboan zure liburua irakurtzea

1. Gazte-talde gatazkatsu batzuei greaser izena ematea taldekideek buruko ilea gominaz orrazteko zuten usadiotik dator (adibidez, James Dean aktorea *Rebel without a cause* filmean).

bezala da. Nire bitxikeriak dira horiek. Bestelakoa naiz etxekoen aldean. Nire anaietan bigarrena, Soda, hamazazpi urte egitekoa da. Eta ez du sekula libururik irakurri. Eta anaia nagusia, Darrel –guretzat Darry– lanez lepo dabil beti. Eta ez du segundorik ere hartzen istorio batez interesatzeko edo marrazki bat egiteko. Ni bestelakoa naiz, baina. Kuadrillan ez dago filmak eta liburuak nik bezala bizi dituenik. Lehen uste nuen munduan niri baino ez zitzazkidalda gustatzen filmak eta liburuak hainbeste. Hor-taz, bakarrik egiten nituen gauza horiek.

Soda, behintzat, ulertzen saiatzen da, Darry ez bezala. Soda ere bestelakoa da. Ia edozer ulertzeko gai da. Adibidez, ez dit denbora guztian oihukatzen, Darryren moduan. Ez nau tratatzen sei urteko umemoko bat baintz bezala. Hamalau urte ditut. Eta Soda maite-maite dut. Beste inor baino gehiago. Aita eta ama baino are gehiago! Soda beti dabil pozik, irribarrea ahoan. Darry, berriz, beti lehor eta ipurterre. Nekez egiten du irribarre. Baina egia da dituen hogeitau urteetan pila bat jasan behar izan duela. Arinegi hazi behar izan du. Sodapop, berriz, beti izango da umea. Ez dakit zein ote den biderik onena. Egun hauetako batean jakingo dut.

Tira, aurrera jarraitu nuen ttipi-ttapa etxerantz, filma buruan nuela. Bat-batean, gogoa etorri zitzaidan lagunen bat ondoan edukitzeko. *Greaserak* ezin gara bakarka luzaro ibili. Eraso egiten digute! Edo norbait hurbiltzen da eta «*greaser!*» egiten digu oihu. Ez da gauza gozoa, ulertzekoa den bezala. *Socek* egiten digute eraso. *Socials* hitzaren laburdura da hori —ez nago ziur nola idazten

den—. Familia on-onekoak dira. *West Side* auzoko aberaskumeak. *Greaser* hitza ere talde-izena da. *East Side* auzoko gazteok aipatzeko erabiltzen da.

Gu pobregoa gara *socak* eta erdi mailako jendeak baino. Basatiagoak ere bai, nik uste. Baina ez *socen* era: haiek hor ibiltzen dira, dibertitzearren soil-soilik, *greaser*oi eraso egiten, etxeak suntsitzen eta garagardofestak egiten. Egunkarietan zutabeak idazten dizkiete, batzuetan gizarterako izurritea baino txarragoak direlako eta besteetan balio handikoak direlako. *Greaser*ok *hooden*² modukoak gara ia-ia: gauzak lapurtzen ditugu, auto trukatu zaharrak gidatzen ditugu, zerbitzuguneak atrakatzen ditugu eta, noizean behin, kuadrillen arteko borrokak antolatzen ditugu. Kontuz, ez dut esan nahi nik horrelakorik egiten dudala! Darryk akabatuko ninduke poliziarekin arazorik edukiko banu. Ama eta aita auto-istripu batean hil zirenetik, gu hiruroi elkarrekin bizitzen uzten digute, ganoraz portatzen garen bitartean behintzat. Eta horregatik, Soda eta biok istiluetan ez sartzen saiatzen gara. Eta ezin dugunean, harrapatu ez gaitzaten saiatzen gara. Diodan bakarra da *greaser* gehienek gauza horiek egiten dituztela, ilea luze eramaten dugun bezala edo jeansak eta elastikoak janzen ditugun bezala. Edo alkandorak galtza gainetik atera eta larruzko jakak, kirol-oinetakoak edo botak janzen ditugun bezala. Ez diot *socak* txarragoak edo *greaser*ak hobek direnik. Gauzak nola diren diot bakarrik.

11

2. Gangsterra edo gaizkile bortitza.

Zinemara bakarka abiatu aurretik, itxarotea neukan Darry edo Sodapop lanetik irten arte. Nirekin etorriko ziren, edo ni autoz eraman, edo oinez lagundu. Baina Soda ez da gai eserita egoteko film bat bukatu arte. Eta Darry seko aspertzen dute filmek: berak nahikoa du bere bizitzarekin besterena ikusten ibili gabe. Edo kuadrillako baten bat bilatzea neukan nirekin etortzeko. Hau da, Darryrekin, Sodarekin eta nirekin batera hazi diren lau mutiletako bat. Guretzat familia bezalakoa dira eta. Ia anaiak bezain hurbilak gara: gurea bezalako auzo batean hazten zarenean guztiz ongi ezagutzen dituzu ingurukoak, auzokideen arteko loturak estuak dira eta. Pixka bat pentsatu banu, Darryri deituko nion eta lanetik etxerako bidean bila etorriko zitzaidan. Edo Two-Bit Mathews —kuadrillako lagun bat— etorriko zen autoan ni eramateko, eskatu banio. Baina batzuetan ez dut burua erabiltzen, horixe da dena. Darry zoratu egiten dut horrelako gauzak egiten ditudanean, zeren, argia omen bainaiz, nota onak jasotzen baititut eta adimenkoefiziente altua omen baitut eta hori dena. Baina ez dut burua erabiltzen. Eta tira, gustatzen zait ttipi-ttapa oinez ibiltzea.

Baina ez zitzaidan hainbeste gustatu Corvair gorri bat niri segika ikusi nuenean. Etxetik ia bi kaletara nengoen, eta, zer egingo nuen, ba: urratsa bizkortu nuen pixka bat. Ez nuen sekula erasorik jaso, baina ikusia nuen behin Johnny nola utzi zuten lau *socek*, eta ez zen gauza atsegina. Bere itzalaren beldur ere zen Johnny, hori gertatu ondoren. Hamasei urte zituen orduan.

Susmatzen nuen alferrik zela —urratsa bizkortzea esan nahi dut— autoa nire ondoan gelditu eta bost *soc* irteten ikusi nituen unea baino lehenago ere. Dezente beldurtu nintzen. Hamalau urte izateko, txiki samarra naiz. Gorputzez ez naiz makala, hori bai, baina tipo haiek ni baino handiagoak ziren. Automatikoki hatz lodiak sakeletan sartu nituen, eta burumakur egin nuen aurrera. Pentsatu nuen beharbada ihes egin nezakeela, oharkabea edo. Johnny gogoratu nuen, nola zeukan aurpegi osoa labana-ebakiz eta ubeldurez, eta nola negar egin zuen aurkitu genuenean, ia konorte gabe, kale kantoiko orubean. Johnnyk bizimodu latza zuen etxean. Asko behar zen hari negar eragiteko.

13

Izerdi patsetan nengoen, baina hotz nintzen. Eskuak umel sentitzen nituen, eta izerdia bizkarrean behera. Horrela jartzen naiz oso ikaratuta nagoenean. Ingurura begiratu nuen botilaren bat edo makila bat edo zerbait bilatzeko. Behin, Steve Randlek, Sodaren lagun minak, lau tipori aurre egin zien botila hautsi batekin. Baina nik ez nuen ezertxo ere aurkitu. Eta leloa bezala gelditu nintzen inguratzen ninduten bitartean. Ez dut burua erabiltzen. Atzean eta aurrean jarri ziren, mantso, isilik, irribarrez.

—Aizak, *greaser*! —esan zuen batek, adiskide plantak eginez—. Mesede bat egingo diagu, *greaser*. Txima luze koipetsu horiek moztuko dizkiagu!

Kotoi finezko alkandora laukidun bat zuen soinean. Oraindik ikusten dut. Alkandora urdina zen. Batek algarra bota zuen, eta birao batzuk bota zizkidan ahapeka. Ez

nekien zer esan. Ez dago esateko askorik egurra hartzeko zain zaudenean! Eta ez nuen ahoa zabaldu.

—Ile-mozketa behar duk, *greaser*? —altueraz ertaina zen ilehoriak labana atera zuen atzeko sakelatik, eta ireki egin zuen.

Azkenean, zer esan asmatu nuen:

14 —Ez! —atzeraka nindoan, labanatik urrundu nahirik. Baina, noski, tipoetako batekin egin nuen topo. Segundo batean bota ninduten lurrera. Besoak eta hankak lurraren kontra tinkatu zizkidaten, eta tipo bat bularraren gainean eseri zitzaidan, belaunak nire ukondoan gainean. Horrek bai ematen duela min, zaude ziur! *English Leather* bizarlozioaren eta tabako ustelaren usaina sumatzen nuen, eta, inozoa ni, pentsatu nuen beharbada ito egingo nintzela haiek beste ezer egin aurretik. Horixe desio nuen, hain nengoen izututa. Askatzen ahalegindu nintzen, eta ia lortu nuen une batez, baina estuago hartu ninduten, eta bular gaineko tipoak pare bat ukabilkada eman zidan. Mugitzeari utzi nion. Birao egiten nien soilik, arnaskaden artean. Labana bat neukan lepoaren kontra.

—Zer iruditzen zaik kokots azpitik hasten bagara ilea mozten?

Ni hiltzeko kapazak zirela pentsatu nuen. Erotu egin nintzen. Oihuka hasi nintzen laguntza eske Sodari, Darryri, edonori. Esku batek ahoa estali zidan. Ahal bezain gogor egin nion kosk. Odol zaporea sumatu nuen hortzen artean. Birao bat entzun zen, eta beste muturreko bat jaso nuen berehala. Mukizapi bat sartu zidaten ahoan.

—Isil dadila, demontre, isil dadila! —esaten zuen batek.

Orduan oihu batzuk entzun ziren, eta urratsen zala-parta. *Socek* alde egin zuten bat-batean, eta hantxe etzanda gelditu nintzen, arnasestuka. Ez nekien zer gertatzen zen. Jendea nire gainetik saltoka eta nire inguruan korrika ari zen. Burua nahasiegia neukan ulertzeko. Halako batean, norbaitek besapeetatik heldu, eta zutik jartzen lagundu zidan. Darry zen.

—Ongi al hago, Ponyboy?

15

Astindu egiten ninduen, eta astintzeari uztea nahien. Konturatu nintzen Darry zela, hein batean ahotsagatik eta hein batean Darryk beti zakar tratatzen nauelako, oharkabea.

—Ongi nagok! Ez astindu gehiago, Darry. Ongi nagok!

Momentuan gelditu zen.

—Barka! Sentitzen diat.

Ez zen egia, Darryk ez du sekula damurik. Gauza bitxia da: gure aitaren berdin-berdina da itxuraz, baina portaera guztiz alderantzizkoa du. Aitak berrogei urte soilik zituen hil zenean, baina hogeita bost zituela ematen zuen. Jende askok uste zuen Darry eta aita anaiak zirela aita- semeak izan beharrean. Baina itxuraz baino ez ziren berdinak. Aitak sekula ez zuen inor zakar tratatu oharkabea.

Darry metro bat eta laurogeita zazpi luze da. Zabalzabalak ditu sorbaldak, eta gihartsua gorputza. Ilea, gaztaina-kolore ilunekoa, pixka bat irtena aurrerantz, eta puntatxo batzuk atzerantz —aitak horrelaxe zeukan—,

baina Darryren begiak bere-bereak dira: bi izotz puska urdin-berde, beti finko eta seguruak, Darryren gorputz osoa bezala. Hogei urte baino gehiago dituela ematen du: sendoa, lasaia eta argia da. Ikaragarri ederra litzateke begiak hain hotzak ez balitu. Egia berdadera dena besterik ez du ulertzen, baina badaki burua erabiltzen.

Berrero eseri nintzen, masaila igurtziz zartada gehien eman zizkidaten tokian.

Darryk sakeletan sartu zituen ukabilak.

16

—Ez diate min handia egin, ezta?

Egin zidaten, bai. Minez zoratzen nengoen, bularra kolpatuta, kirioak dantzan, eskuak dardarka; negar egin nahi nuen alarauka, baina Darryri ezin zaio horrelakorik esan.

—Ongi nagok.

Sodapop hurbildu zen trostan. Ordurako, banekien entzun nuen zalaparta nire kuadrillak sortu zuela, ni askatzera etortzean. Soda ondoan makurtu zitzaidan, nire buruari begira.

—Ebaki txiki bat daukak, e, Ponyboy?

Lelo aurpegiz begiratu nion.

—Ebaki bat?

Mukizapi bat atera zuen. Mihiaz busti zion punta bat, eta kopeta alboan jarri zidan, gozoki.

—Odoletan hago txerriak bezala!

—Odoletan?

—Begira!

Mukizapia erakutsi zidan, gorri-gorri eginda, magiaz bezala.

—Labanaz egin diate?

Lehenago hitzak etorri zitzaizkidan burura: «Ile-mozketa behar duk, *greaser?*». Labanak ukituko ninduen ahoa ixtera behartzen ari zirela.

—Bai.

Soda ezagutzen dudan tiporik ederrena da. Ez ederra Darryren erara; Soda zinema-izarren erara da ederra. Klean, jendea begira gelditzen zaio. Ez da Darry bezain altua, hura baino mehexeagoa da, baina aurpegi goxoagoa du, sentikorra, aldi berean itxura zuhurtziagabe eta gogoetatsua duena. Urregorriaren antzerako ile hori iluna dauka, luzea, leuna, lisoa. Atzerantz orrazten du, eta udan eguzkiak argitu egiten dio urre distiratsua bezalako bihurtu arte. Gaztaina ilunak ditu begiak, bi-ziak, dantzariak, ausarki egiten dutenak irri. Une batean amultsuak eta urrikalkorrak izan daitezke, eta hurrengoan haserrez sutan egon daitezke. Aitaren begiak ditu, baina Soda bakarra da, beste inor ez bezalako. Alkoholikukitu gabe mozkor daiteke auto-lasterketa batean edo dantzan egiten duenean. Gazte gutxi aurkituko dituzugure auzoan noizean behin aitzurtxo bat harrapatzen ez dutenak, baina Sodak ez du ttantta bat ere probatzen. Ez du beharrik. Bizitzak mozkortzen du, kito. Eta mundu guztia ulertzeko gai da.

Hurbilgotik begiratu zidan. Nik begirada aldendu nuen berehala, ze, egia esango badut, negar egitear nengo. Banekien zurbil-zurbil nengoela eta dardara bizian.

Sodak sorbaldan pausatu zidan eskua.

—Lasai, Ponyboy. Bukatu duk. Ez diate min gehiagorik egingo.

—Bazakiat —esan nuen, baina bista lausotu egin zitzaidan, eta malko beroak nabaritu nituen masailetan behera. Berehala lehortu nituen eskuaz.

—Pixka bat ikaratuta nagok, horixe duk bakarrik.

Arnasaldi bat egin nuen, eta negarra etetea lortu nuen. Ez da negar egin behar Darryren aurrean. Ez, behintzat, ez baduzu Johnnyk bezainbateko egurra hartu, orube soilean aurkitu genuen aldian bezala. Johnnyk jasotakoren aldean, nirea ez zen ezertxo ere.

18 Sodak ilea igurtzi zidan.

—Mutil jatorra haiz, Pony.

Irribarrea atera zitzaidan. Sodak edozein egoeratan irribarre eginaraz diezazuke. Beharbada bera beti da goelako irribarrez.

—Zoratuta hago, Soda. Burutik eginda hago.

Darryk gure buruak elkarren kontra jo nahiko balitu bezala begiratzen zigun.

—Burutik jota zaudete biok.

Sodak bekain bat altxatu zuen. Two-Bitengandik hartu zuen keinu hori.

—Uste dut familiako gauza dela.

Darry begira gelditu zitzaion une batez. Segituan, irribarrea atera zuen. Soda ez da Darryren beldur mundu guztia bezala, eta gustuko du hari adarra jotzea. Nik lehenago joko nioke adarra hartz handi bati, baina arrazoirren batengatik, ematen du Darryk gustuko duela Sodak adarra jotzea.

Gure kuadrilla *socen* atzetik arrapaladan joana zen, *socak* autora sartu ziren arte. Harrika egin zieten orduan.

Gero, gugana itzuli ziren berriro lasterka: lau tipo mehe baina sendo. Guztiak harria baino gogorrakoak. Itxura ere halakoa zuten. Haien artean hazi nintzen ni. Gazteagoa nintzen, baina onartu egiten ninduten, Darryren eta Sodaren anaia txikia nintzelako eta ahoa itxita edukitzen nekielako.

Steve Randlek hamazazpi urte zituen. Altua eta mehea zen. Ile sendoa zeukan, gominaz gogortua eta atzerantz orraztua kiribil korapilatsuetan. Harrokoa eta buruargia zen, eta Sodaren lagun mina Lehen Hezkuntzatik. Autoak ziren Steveren espezialitatea. Auzoko beste inork baino arinago eta isilago lapurtzen zituen autoen gurpil-estalkiak. Auto osoak ere goitik behera ezagutzen zituen. Gai zen gurpilak dituen edozer gidatzeko. Sodak eta Stevek zerbitzugune berean egiten zuten lan, Stevek egun erdiz eta Sodak egun osoz, eta hiriko beste edozein gasolindegitarra baino bezero gehiago joaten ziren haiera. Ez naiz gai esateko horrela ote zen Steve autoekin abila zelako edo euliak eztira bezala joaten zirelako nekak Sodagana. Nik gustuko nuen Steve, baina Sodaren lagun mina zelako soilik. Berak ez ninduen ni gustuko. Berarentzat haiei itsatsita ibiltzen zen ume bat baino ez nintzen. Sodak beti eramaten ninduen haiekin —neskekin zihoazenean salbu—, eta Steveri ez zitzaion hori gustatzen. Ez zen nire errua. Sodak niri galdetzen zidan joan nahi ote nuen, ez Steveri. Sodarentzat ez naiz umea.

Two-Bit Mathews kuadrillako zaharrena zen, eta taldeko txantxagilea. Metro eta laurogei pasa luze zen. Gorputz sendoko tipoa. Harro zegoen belarrondoetan behera

zituen herdoil-koloreko ile-xerrendez. Begi grisak zituen, eta irribarre zabala. Etengabe botatzen zituen txantxak. Ez zegoen hura isilarazterik! Beti bota behar zuen bere aletxo parean. Hortik ezizena. Irakasleek ere ahaztua zuten Keith zuela benetako izena, eta guk kostata gogoratzen genuen. Two-Bitentzat bizitza txantxa handi bat baino ez zen. Famatua zen dendetan gauzatxoak lapurtzeagatik eta bere kirten beltzeko labanagatik (hura ere salgaiak lapurtzeko abileziari esker lortu zuen). Beti zebilen poliziei adarra jotzen. Haiekin ere ez zen gai isilik egoteko: esaten zuen guztia hain zen dibertigarria, ezen bere hitz jostalariez gozatzeko aukera poliziei ere eman behar zien, haien bizitza tristea alaitzearren (horrela azaldu zidan berak niri). Gustuko zituen borrokak eta neska ilehoriak, eta, ulertu ezin dudan arrazoiren bategatik, eskola ere bai. Hirugarren mailan zegoen hemezortzi urte eta erdi izan arren, eta ez zuen piperrik ikasten. Barre pixka bat egiteko joaten zen. Nik oso maite nuen, etengabe barre eginarazten zigulako geure buruaz, baita beste gauza batzuek ere. Will Rogers umorista ekartzen zidan gogora. Irribarreagatik beharbada.

Kuadrillako kide bat nabarmendu beharko banu, Dallas Winston —Dally— aukeratuko nuke. Haren irudia marraztea gustatzen zitzaidan aldarte arriskutsuan zegoenean. Orduan, marra gutxi batzuk nahikoa ziren haren irudia egiteko. Iratxo itxurako aurpegia zuen, masail altuak eta kokots zorrotza. Hartz txiki zorrotzak, animalien erakoak, eta katamotz belarriak. Ilea ia zuria zuen, hain zen argia. Ez zuen moztu nahi izaten, ezta gominaz

igurtzi ere, eta xerloka luzatzen zitzaion kopetan behera, sortaka buruan atzera eta kiribilka belarrien gainetik eta garondoan. Begi urdinak zituen, hotzak, mundu osoarekiko herrak izoztuak. Dallyk hiru urte pasatu zituen New Yorkeko alde basatian. Hamar urte besterik ez zuela atxilotu zuten. Gogorragoa zen beste guztiok baino. Gogorragoa, hotzagoa, gaiztoagoa. Ez zeukan *greaserak* eta *hoodak* bereizten dituen ñabardura hori. Basatia zen, hiriaren erdialdeko mutilak bezala, Tim Sheparden kuadrilla bezala.

21

New Yorken, taldeen arteko borroketan kanporatzen zuen barneko sua, baina hemen gutxi dira talde antolatutak. Hemen lagun talde txikiak gara, besterik gabe elkarrekin ibiltzen garenak, eta borrokak gizarte-mailen artekoak izaten dira. Hemen, borrokara deitzen denean, ezinikusi batetik hasten da kontua, eta muturka egiten dutenekin bat egiten dute bakoitzaren lagunek, besterik gabe. Tira, badaude izena eta guzti duten talde batzuk. Adibidez, River Kings eta Tiber Street Tigers, baina hemen, hego-mendebaldean, ez dago talde-lehiarik. Horregatik, Dallyk, tarteka borrokaren batean sartzen bazen ere, ez zeukan nor gorrotatu. Ez zegoen etsai talderik. Socak zeuden, besterik ez. Eta haien kontra ez dago irabazterik, berdin dio zer egiten duzun. Haiek dena dute alde, eta astindu bat ematea lortuko bazenu ere ez duzu hori aldatuko. Beharbada horregatik zegoen Dallas hain mingosturik.

Fama galanta zuen. Poliziek fitxa eta guzti egin diote. Atxiloturik egona da, mozkortzen da, rodeoetan par-

te hartu du, gezurtia da, tranpatia, lapurra, diru-zorroa kentzen die mozkorrei, haurrak jotzen ditu... Zer ez ote du egin! Nik ez nuen gustuko, baina argia zen, eta errespetuz jokatu behar zen berarekin.

22 Eta, azkenik, Johnny Cade daukagu, Johnny azkenengotxo hori. Irudika ezazu txakurtxo txiki bat, denek beti hanka tartean darabiltena eta toki ezezagun batean galduta dagoena. Horrelakoxea zen Johnny. Gazteena zen —ni kenduta—, eta tamainaz apalagoa, gorpuzkera txikiagokoa besteok baino. Begi beltz handiak zituen. Aurpegi beltzarana. Ilea, berriz, beltz-beltza, gomina ugariz alborantz orraztua, baina, hain luzea zuenez, kopeta estaltzen zioten txima nahasiek. Begirada urduri eta goganbehartsua zeukan, eta *socek* gogor jo zuten aldi hark ez zion batere onik egin alde horretatik. Kuadrillaren maskotatxoa zen, guztion anaia txikia. Aitak egurra ematen zion, eta amak ez zion jaramonik egiten, salbu eta zerbaitengatik haserre zegoenean. Horrelakoetan, gure etxetik ere entzuten genituen semeari egiten zizkion oihuak. Uste dut gogorragoa egiten zitzaiola hori egurra jasotzea baino. Mila aldiz egingo zuen etxetik alde, gu eduki ez bagintu. Kuadrillagatik izan ez balitz, Johnnyk ez zuen inoiz jakingo maitasuna zer den.

Presaz lehortu nituen begiak.

—Harrapatu al dituzue?

—Bai zera! Ihes egin digute aldi honetan madarikatuek... —Two-Bitek alai jarraitu zuen *soce*z era guztietako irainak esaten.

—Ongi dago gure txikia?

—Ongi nagok.

Esateko gauzaren bat bilatzen ari nintzen. Normalean isil samarra naiz jendearekin nagoenean, kuadrillakoekin ere bai. Gaia aldatu nuen.

—Ez nekian zulotik kanpora hengoela, Dally.

—Portaera ona. Arinago askatu naitek.

Dallasek zigarreta bat piztu zuen, eta Johnnyri eman zion. Guztiok eseri ginen zigarretatxo bat erre eta lasaitzeko. Erretzeak beti arintzen du tentsioa. Nik utzia nuen dardara, eta berreskuratua nuen kolorea. Zigarretak lasaitzen ninduen. Two-Bitek bekain bat altxatu zuen.

—Ubeldura polita daukak, txo.

Masaila ukitu nuen, kontu pixka batekin.

—Bai?

Two-Bitek baietz egin zuen buruarekin.

—Ebaki ederra ere badaukak. Tipo gogorra ematen duk.

Norbaiti gogorra dela esatea loreak botatzea bezalakoa da gure auzoan. Gauzaren batez gehiegi dela esatea ere gauza ona da, auto hori edo disko hori gehiegi da esatean bezala.

Stevek niganantz astindu zituen errautsak.

—Zer dela eta henbilen bakar-bakarrik? —Stevek bota behar zuen galdera hori, nork bestela.

—Etixerantz nindoan zinematik. Ez nian pentsatu...

—Ez duk inoiz pentsatzen —moztu zidan Darryk—, ez etxean ez beste inon, benetan behar denean. Bazirudik eskolan behintzat pentsatzen duala, ekartzen dituan notak ikusita. Beti daukak sudurra libururen batean sar-

tuta, baina erabiltzen duk burua gauzak zentzuz egiteko? Ez jauna! Bo! Etxera bakarrik itzultzeko asmoa baheukan, labana eraman behar huen!

Kirol-oinetakoaren puntan nuen zuloari begira nengoen. Darryk eta biok ez dugu elkar ulertzen. Ez dago bera gustura edukitzerik. Labana eraman banu galantak botako zizkidan horixe egiteagatik. Etxera oso ongiak eramaten banituen, berak bikainak nahi zituen. Eta bikainak eramaten banituen, orduan kezka zen ea notei eutsiko ote nien. Futbolean ari banintzen, ikasten egon behar nuen, eta irakurtzen ari banintzen, futbolean ibili behar nuen. Sodapopi ez zion inoiz oihu egiten, ezta Sodak eskola utzi zuenean ere, edo abiadura-isunak jartzen zizkiotenean. Niri bakarrik egiten zidan oihu.

24

Sodak zorrotz begiratzen zion.

—Utzi bakean nire anaia txikia, entzun? Ez duk gauza txarra zinema gustatzea, eta ez duk haren errua socek egurtu nahi gaituztela. Gainera, labana eraman balu aitzakia ederra edukiko zitean larrutu arte ebakitzeko.

Sodak beti egiten du nire alde.

Darryk gogaituta bezala erantzun zion.

—Nahi baldin badiat, nire anaia txikiak esatea zer egin nire beste anaia txikiarekin, hiri galdetuko diat, anaia txiki!

Baina ni lasai utzi ninduen. Beti egiten du hala, Sodapopek eskatzen dionean. Hala egiten du gehienetan, behintzat.

—Hurrengoan esaguk edonori hirekin joateko, Ponyboy —esan zuen Two-Bitek—. Prest edukiko gaituk denok.

—Filmei buruz ari garela... —esan zuen aharrausiz Dallyk, zigarreta punta jaurtitzen zuen bitartean—. Bihar gauean, Nightly Doublera joango naiz. Badator norbait ekintza pixka bat bilatzera?

Stevek ezetz egin zuen buruarekin.

—Sodak eta biok partidara eramango ditiagu Evie eta Sandy.

Ez zeukan niri begiratu beharrik begiratu zidan moduan. Ez neukan asmorik joan ote nintekeen galdetzeko. Ez nioke hori esango Sodari, Steve asko maite duelako, baina batzuetan ezin dut Steve Randle jasan. Benetan diot. Batzuetan gorroto dut.

Darryk hasperen egin zuen. Banekien hori egingo zuela. Darryk dagoeneko ez zeukan ezer egiteko astirik.

—Lan egin behar diat bihar gauean.

Dallyk begiratu egin zigun beste guztioi.

—Eta zuek? Two-Bit? Johnnycake, Pony, nahi al duzue etorri?

—Johnny eta biok joango gaituk —esan nuen. Banekien Johnnyk ez zuela ahoa irekiko inork behartzen ez bazuen.

—Ados, Darry?

—Bai, ez duk-eta eskola-bezpera.

Darry eskuzabala zen asteburuetan ni hortik ibiltzen uzteko. Eskola-bezperetan, ordea, ia ez zidan etxetik irteteten uzten.

—Bihar gauean aitzurra harrapatzeko asmoa nuen —esan zuen Two-Bitek—. Azkenean hori egiten ez badut, joan eta aurkituko zaituztet.

Steve Dallyren eskuari begira zegoen. Atzamarrean zeukan berriz eraztuna. Mozkortuta zegoen institutuko laugarren mailako tipo bati egurra emanda lortu zuen.

—Berriro moztu duk Sylviarekin?

—Bai, eta aldi honetan betiko. Sorgin horrek beste batekin bete zian hutsunea ni kartzelan nengoan bitartean.

26 Sylviagan, Eviegan eta Sandygan pentsatu nuen, eta Two-Biten neskak ilehori ugariengan. Era horretako neskak soilik egiten ziguten kasu. Neska gogorak, ahoberoak, begiak makillaje gehiegiz apaindutakoak, beti irrika eta biraoka zebiltzanak. Hala ere, gustatzen zi-tzaidan Sodaren neska, Sandy. Ile hori naturala zuen, eta samurra barrea, urdin-koloreko begiak bezala. Ez zuen panorama ona etxean, eta gure tankerakoa zen; hau da, *greasera*. Baina neska atsegina zen benetan. Edonola, askotan galdetzen nion neure buruari nolakoak ote ziren beste neskak, begi distiratsuak zituzten neskak, ganoraz-ko luzerako jantziak zeramatzenak eta guri listua botatzeko gogoia edukiko balute bezala jokatzeko zutenak. Batzuk gure beldur ziren, baina Dallas Winston bat ezagututa ez naiz harritzen. Dena den, gehienek zarama bagina bezala begiratzen ziguten. *Socek* halaxe begiratzen ziguten, gure ondotik beren Corvairetan eta Mustangetan pasatzean «*greaser!*» oihukatzen zigutenean. Haiengan pentsatzen nuen. Neskengan, esan nahi dut. Negar egiten ote zuten beren mutilak atxilotzen zituztenean, Eviek egin zuen bezala Steve eraman zutenean, edo albora uzten ote zituzten, Sylviak Dallas utzi zuen bezala? Edo, beharbada, haien

mutilak ez zituzten inoiz atxilotzen, edo egurtzen, edo rodeo batetik kolpez beterik ateratzen.

Buruan horri bueltaka jarraitzen nuen gauean ere, eskolako lanak egiten nenbilen bitartean. *Great Expectations* irakurri behar nuen Ingeleserako, eta eleberriko Pip mutil horrek... burura ekartzen zidan gu nolakoak ginen, nola sentitzen zen baztertua, ez zelako *gentleman* bat edo horrelako zerbait, eta nola neska hark mespretxuz hartzen zuen. Niri ere gertatu zitzaidan aldi batean. Biologian, behin, har bat disekezionatu behar genuen. Eman ziguten xaflak ez zuen ebakitzen, eta labana automatikoa atera nuen. Ireki nuen, eta (jakin banu ez nuen aterako) ondoan zegoen neskak oihu txiki bat bota zuen, eta esan zuen: «egia da, *hood* bat zara!». Horrek ez ninduen oso ongi sentiarazi. *Soc* mordo bat zegoen ikastalde horretan (talde aurreratuetan jartzen naute, esaten dutelako argia naizela), eta gehienei barregarria iruditu zitzaien. Niri, ez. Neska polita zen hura. Benetan ederra zegoen horiz jantzita.

Ditugun arazoetako asko mereziak ditugu, pentsatu nuen. Dallasek merezi du jasotzen duen egur guztia, eta gehiago ere bai, egia esateko. Eta Two-Bitek, dendetatik lapurtzen dituen gauzetatik, ez ditu ezertarako behar erdiak ere. Uste du dibertsioa dela iltzez josita ez dagoen guztia patrikaratzea. Baina ulertzen dut Sodapop eta Steve zergatik sartzen diren hain sarri auto-lasterketa klandestinoetan eta borroketan: biek sobera dute energia, sua sentitzen dute barrenean, eta ez dute beste modurik kanporatzeko.

—Igurtzi gogorrago, Soda —esan zuen Darryk marka—. Lo utziko nauk.

Atetik barrura begiratu nuen. Soda bizkar-masajea ematen ari zitzaion Darryri. Darry beti dabil giharrak behartzen. Teilak ipintzen ibiltzen da, eta beti saiatzen da teila sortak binaka igotzen eskaileran gora. Banekien Sodak lo utziko zuela, Sodak edonor lo seko utz dezakeelako horretara jartzen denean. Gainera, Darryk lan gehiegi egiten zuen, Sodaren iritziz. Nire iritziz ere bai.

Ez zegoen ongi Darryk gizon heldu batek bezala lan egitea. Hogei urte baino ez zituen. Eskolan tipo maitatua izan zen. Futbol-taldeko kapitaina zen, eta, behin, Urteko Mutila izendatu zuten bozketa bidez. Baina ez genuen diru nahikorik bera unibertsitatera joan zedin. Kirol-beka irabazi zuen arren, ez zen nahikoa. Eta orain, lan baten eta bestearen artean ez zuen astirik ikasketak egitean pentsatzeko ere. Eta horrela, ez zen inoiz inora joaten, eta ez zuen ezer egiten. Soil-soilik soin-ariketak gimnasioan eta noizbehinka eskia aspaldiko lagun bartzuekin.

Masaila igurtzi nuen, ubelduta nuen lekuan. Ispiluan ikusia nuen eta, kontxo, gogor-itxura ematen zidan. Baina Darryk tirta bat ipinarazi zidan ebakiaren gainean.

Gogoratu nuen zer itxura penagarria zuen Johnnyk egurtu zutenean. Nik *socen* eskubide bera nuen kalean ibiltzeko, eta Johnnyk ez zien inoiz kalterik egin. Zergatik gorrotatzen gintuzten hainbeste? Guk bakean uzten genituen. Ia lo gelditu nintzen eskolako lanen gainean, kontu hura ulertu nahian.

Sodapop ordurako ohera salto egina zen, eta oihu egin zidan, erdi lo, argia itzaltzeko eta ni ere ohera joa-

teko. Halaxe egin nuen irakurtzen ari nintzen kapitulua bukatu bezain laster.

Sodaren ondoan etzanda, hormari begira, inguratu ninduten *socen* aurpegiak gogoratzen jarraitu nuen: tipo ilehoriak zeraman kotoi finezko alkandora lauki-dun urdin hura, eta ahots sendo hura «Ile-moz-keta behar duk, *greaser*?» esaten. Hotzikara sentitu nuen.

—Hotz haiz, Ponyboy?

—Pixka bat.

Gezurra zen hori. Sodak besoa pasatu zidan lepoaren gainetik. Marmarrean esan zuen zerbait, erdi lo.

—Entzun, txo, Darryk errieta egiten dianean... Ez dik ezer hire aurka. Kezka gehiegi ditik bere adinerako. Ez ezak txarrean hartu... Ulertzen duk, Pony? Ez hadi kezkatu. Harro zagok hitaz, tipo argia haizelako. Gertatzen dena duk hi anaia txikia haizela. Alegia, berak asko maite hau, e, txo?

—Ados —esan nuen, ziur nengoenaren itxura egiten saiatuz, Soda lasaitu zedin.

—Soda?

—Zer?

—Zergatik utzi huen eskola?

Ez dut inoiz hori ulertu, ez zitzaidan buruan sartzen berak eskola utzi izana.

—Motza naizelako. Bi ikasgai soilik gainditzen nintzen, auto-mekanika eta gimnasia.

—Ez haiz motza.

—Bai, banauk. Isilik egon, gauza bat kontatuko diat. Ez Darryri kontatu, baina.

—Ados.

—Uste diat Sandyrekin ezkonduko naizela. Berak eskola bukatzen duenean eta nik lan hobea lortzen dudanean eta hori dena. Beharbada, hik eskola bukatu arte ere itxarongo diat, Darryri lagundu ahal izateko etxeko gastuekin eta abar.

—Primeran! Baina, bai, itxaron nik ere bukatu arte, Darry nire gainetik kentzen jarraitu behar duk ordura arte.

—Ez hadi horrelakoa izan, motel. Esan diat ez duela benetan esan nahi...

30 —Maiteminduta hago Sandyrekin? Zer sentitzen duk?

—Mmm —hasperen egin zuen, pozik—. Oso gauza atsegina duk.

Bat-batean, leuna eta lasaia bihurtu zitzaion arnasa. Burua beraganantz biratu nuen, eta, ilargiaren argipean, lurrera jaitsitako jainko greziar bat ematen zuen. Nola izan zitekeen hain ederra? Hasperen egin nuen. Ez nuen ongi ulertu zer esan nahi zidan Darryz. Harentzat, elikatu behar zen aho bat gehiago baino ez nintzen, eta errieta egin behar zaion tipo bat. Darryk ni maite? Haren begi gogor zurbilak gogoratu nituen. Soda oker zegoen, lehen aldiz bazen ere. Darryk ez du inor maite, ez du ezer maite. Soda izan ezik, beharbada. Niretzat ia ez zen gizakia Darry. Bera ere niri bost axola, esan nion neure buruari, baina ez zen egia. Sodarekin nahikoa dut, eta nirekin egongo da eskola bukatzen dudanean arte. Darryk ez dit axola. Baina neure burua engainatzen ari nintzen. Eta banekien. Beti nabil neure burua engainatzen. Baina ez diot neure buruari sinesten.